

## Euskaldunen hizkuntz jokabidea

Euskararen erabilpena aztertzerakoan datuen irakurketa bat baino gehiago egin daiteke. Holakoetan epaitzen dena ez da soilik *euskararen egoera soziolinguistikoa*, euskaldunen portaera, haien hizkuntzarekiko atxekimendua ere ebaluatzen da. BAT Soziolinguistika Aldizkaria, bere 5. Zenbakian, J. I. Ruiz de Olabuenagak idatzitako "*Euskararen ezagutza eta erabilpen soziala*" (101-105 or.) zeritzan artikuluan euskararen erabilpenaz, zuzenean, eta euskaldunon portaeraz, zeharka, esaten denari buruz zenbait hausnarketa egin nahi genuke.

Lehenik eta behin J.I. Ruiz de Olabuenagak eginiko *euskara-gertakariaren* deskribapenarekin gure erabateko adostasuna azpimarratu nahi genuke. Deskribapen hori

*Olabuenagak  
esaten duenean.:  
"euskaldunek  
(gehienak  
hiritarrak) ez dute  
euskara ohizko  
hizkuntza beren  
eguneroko bizitza  
sozialean"  
bildutako datuen  
okerreko  
interpretapena  
egiten dula uste  
dugu*

lehenengo eta bigarren postulatueta agertzen da. Hirugarren postulatu esaten denari buruz, ostera, zalantza bat baino gehiago daukagu. Esaten denean... *euskaldunek (gehienak hiritarrak) ez dute euskara ohizko hizkuntza beren eguneroko bizitza sozialean ...* bildutako datuen okerreko interpretapena egiten dela uste dugu. Geure buruari egiten diogun galdera, berriz, hau da, EKBk buruturiko *kale-erabilpenaren* neurketatik holako ondoriorik atera ote daiteke?

Galdera horiei erantzuteko ezinbestean EKBk neurtu zuena zahaztu behar dugu eta aztertu ere ea neurtutakoa eta *euskaldunen ohizko hizkuntzaren (euskararen) erabilpena* gauza bera diren ala ez.

*Erdaraz hitz egiten zuten euskaldunak besteak bezain euskararen ohizko erabiltzaileak izan daitezke. Elebidun jakin batek une jakin batean erabilitako hizkuntzak ez du definitzen behin betiko bere hizkuntz-portaera*

Erabilpen-indizeari dagokiolarik bere esanahia argitu beharra dago. EKBk emandako definizioaren arauera *ezagutza eta erabilpen portzentaien arteko indizea, Otik 1 bitartekoa*. Hala ere... *euskaldunen erdiak baino gehiagok ez du euskara erabiltzen eguneroko bizitza sozialean* esaten denean EKBk *euskararen ohizko erabiltzaileak* zenbatu dituela pentsarazten zaigu eta, egia esan, hori ez da horrela.

Euskararen *kale-erabilpenaren neurketari* metodologiaren ikusmiratik ezin hobea deritzogu, hor ez dago zalantzarik. Gakoa, ostera, interpretapenean datza eta, horretarako alde zurretik ondoko puntuak argitu behar ditugu:

1. Neurketa egiterakoan kalean zehar zebiltzanak euskaldunak zein erdaldunak ziren.

2. Behatu eta neurtu zena hau zen: *euskaraz mintzo ziren biko edo gehiagoko hiztun taldeak*. Horrela izan ez balitz jakin nahi genuke zenbat *bakarrizketa* behatu ziren.

3. Euskaraz mintzo ziren guztiak euskaldunak zirela ziur gaude baina ez daukagu inolako arrazoirik esateko *ohizko erabiltzaileak direnik*.

4. Erdaraz mintzo zirenak euskaldunak zein erdaldunak izan zitezkeen. Holakoetan, ausazko zenbait faktorek eraginda, erdaraz hitz egiten zuten euskaldunak besteak bezain euskararen *ohizko erabiltzaileak* izan daitezke. *Elebidun jakin batek une jakin batean erabilitako hizkuntzak ez du definitzen behin betiko bere hizkuntz-portaera*.

5. Behatzen zena *biko edo gehiagoko hiztun taldeak* zirenez talde horien eraketa zehaztu beharra dago. Horretan hiztunen arteko nahasketa ematen dela ziur gaude. Hiztun taldeak, kontrakoa frogatu ezean, *ausaz antolatzen dira*; hots, ez daukagu onartzerik euskaldunak beti euskaldunekin biltzen direnik, ez eta haien artean sekula santan biltzen ez direnik ere. Errealitatea oso bestelakoa da.

6. Behatu zen *gertakaria* probilitate-legeen menpe azter daiteke. Izan ere ingurune horretan *euskararen kale erabilpena ausazko gertakaria bait da*.

Horiek horrela, arestian aipatu *erabilpen-indizeak* ez du ezer aipagarririk adierazten, ez bait da *ohizko erabiltzaileen eta euskara ezagutzen dutenen* arteko erlazioa.

Esanak esan neurketaren berrirakurketari ekin baino lehenago behar den oinarri teorikoa behin betiko ezar dezagun. Hortaz, ondorengo hausnarketarako bikotea abiapuntu har dezagun.

Udalerri jakin batean osa daitezkeen bikoteak bi

*Hiztun taldeak, kontrakoa frogatu ezean, ausaz antolatzen dira; hots, ez daukagu onartzerik euskaldunak beti euskaldunekin biltzen direnik*



eratakoak dira erabil daitekeen hizkuntzaren arauera; euskaldunak eta erdaldunak. Euskaldunon artean euskaraz egiten den ala ez zehaztasun osoz jakiterik ez badaukagu, erdaldunek euskaraz ezin egin dezaketela nabarmena da.

Eman dezagun  $X$  eta  $N$  udalerrri jakin bateko euskaldunen (elebidunen) kopurua eta biztanleriaren tamaina hurrenez hurren. Orduan euskaraz ari diren bikote euskaldunen proportzioa honela kalkula dezakegu; lehenik eta behin elebidunen arteko bikote kopurua eta biztanleriaren bikote kopuru osoa zeintzu diren jakin behar dugu.

*Euskaldunen  
arteko hizkuntz-  
harremanak  
esperoturikoa  
baino estuagoak  
dira*

$\binom{X}{2}$  Elebidunen bikote kopurua

$\binom{N}{2}$  Biztanleriaren bikote kopurua

Euskaldun elebakarrik ez dagoela emanez eta aurreko hori jakinik haien arteko erlazioa zahaztasunez ezagutu dezakegu:

$$\frac{\binom{X}{2}}{\binom{N}{2}} = \frac{\frac{x!}{2 (x-2)!}}{\frac{N!}{2 (N-2)!}} = \frac{x!}{2 (x-2)!} \cdot \frac{2 (N-2)!}{N!} = \frac{x}{N} \frac{(x-1)}{(N-1)}$$

Baina hortik  $X/N$  delako zatikiak euskaldunen proportzioa adierazte du ( $e_x$  deiturikoa alegia). Beste alderditik  $N$  eta  $X$  kopuruak nahiko handiak direnean ondokoa esan dezakegu:

$$\frac{(x-1)}{(N-1)} \approx \frac{x}{N} = e_x$$

Ondorioz:

$$\frac{\frac{x!}{2 (x-2)!}}{\frac{N!}{2 (N-2)!}} = \frac{x}{N} \frac{(x-1)}{(N-1)} = e_x e_x = e_x^2$$

Hau da, euskaldun elebakarrak bukatutzat ematen baditugu, bikoteen azterketan euskararen *goren mailako erabilpen-tasa*  $e_x^2$  da. Hori da hain zuzen J.L. Alvarez Enparantzak (1984) behin eta berriz esan duena. Bikoteen azterketan egin dugun bezala gauza bera egin dezakegu hirukoteen, laukoteen, ... eta, oro har n-koteen azterketan eta, horrela frogatu, talde horietan euskararen gizarte mailako *erabilpen-tasarik handienak*, hurrenez hurren,  $e_x^3, e_x^4, e_x^5, \dots$  eta  $e_x^n$  direla. Beste era batera euskararen gizarte mailako erabilpena elebidunen proportzioak ( $e_x$ ) neurririk eraginkorrean mugatzen du.

Orain defini dezagun euskararen gizarte mailako erabilpen-tasarik gorenena (GET):

$$GET = W_2 e_x^2 + W_3 e_x^3 + W_4 e_x^4$$

Non:  $e_x$  euskaldunen proportzioa eta,  $W_2, W_3, W_4$  bikoteei, hirukoteei eta laukoteei legezkiekeen pisuak.<sup>1</sup>

Hori izango da, hain zuzen, gizarte isotropikoan eta euskaldunek *ahal duten guztietan euskaraz egiten dutenean* ( $m_b = 1$ ) eman daitekeen goren mailako erabilpen-tasa.

Ondorengo tauletan EKBk (Hego Euskalerrian) aztertutako 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien izena, euskaldunen proportzioa ( $e_x$ ), EKBk behatutako kale-erabilpenaren tasa (EKB), goren mailako erabilpen-tasa (GET), aurreko bien arteko aldea eta haien beraien arteko zatidura ( $m_b = EKB/GET$  "hizkuntzarekiko leialtasuna").

*Euskaldunen  
hizkuntz-portaera  
oro har,  
euskararen  
aldekoa da harik  
eta haien arteko  
hitz-harremanen  
sarea erdaldunena  
baino trinkoagoa  
izateraino*

UDALERRIA	ex	EKB	GET	GET-EKB	mb
ANDOAIN	.41	.142	.13	-.01	1.06
ANTSOAIN	.05	.009	.00	-.01	5.53
ARRASATE	.43	.193	.15	-.05	1.32
AZKOITIA	.77	.725	.54	-.18	1.34
AZPETITIA	.87	.734	.71	-.02	1.03
BARAKALDO	.03	.005	.00	.00	11.05
BARAÑAIN	.05	.020	.00	-.02	10.43
BASAURI	.09	.009	.01	.00	1.71
BEASAIN	.47	.201	.18	-.02	1.09
BERGARA	.66	.357	.38	.02	.94
BERMEO	.74	.429	.50	.07	.86
BILBO	.09	.025	.01	-.02	4.22
DONOSTIA	.27	.103	.05	-.05	1.90
DURANGO	.38	.106	.11	.01	.93
EIBAR	.44	.143	.16	.01	.91
ELGOIBAR	.53	.210	.23	.02	.90
ERANDIO	.13	.010	.01	.00	.88
ERMUA	.14	.065	.02	-.05	4.23
GALDAKAO	.27	.069	.06	-.01	1.24
GASTEIZ	.06	.020	.00	-.02	7.95
GERNIKA	.67	.348	.39	.04	.89
GETXO	.13	.028	.01	-.02	2.30



HERNANI	.44	.213	.16	-.05	1.34
HONDARRIBIA	.58	.289	.29	.00	1.01
IRUN	.22	.035	.03	.00	1.01
IRUÑA	.06	.013	.00	-.01	4.87
LASARTE ORIA	.28	.088	.06	-.03	1.47
LAUDIO	.11	.025	.01	-.02	3.10
LEGAZPI	.46	.398	.17	-.22	2.29
LIZARRA	.11	.004	.01	.00	.46
MUNGIA	.60	.169	.31	.14	.55
OÑATI	.76	.398	.53	.13	.75
ONDARROA	.87	.709	.72	.01	.98
PASAIA	.23	.121	.04	-.08	3.01
PORTUGALETE	.05	.006	.00	.00	2.87
ERRENTERIA	.23	.079	.04	-.04	1.90
SANTURTZI	.04	.008	.00	-.01	6.67
SESTAO	.04	.005	.00	.00	3.84
TOLOSA	.56	.239	.26	.03	.90
TRAPAGARAN	.05	.048	.00	-.05	32.14
TUTERA	.01	.004	.00	.00	124.63
ZARAUTZ	.68	.385	.41	.03	.94
ZORNOTZA	.46	.417	.17	-.24	2.41
ZUMARRAGA	.33	.121	.08	-.04	1.43

Ondorio gisa honako hau esan dezakegu:

1. Benetako erabilpen-indizea, behatutako erabilpenaren eta erabilpen posiblearen arteko erlazioa, kasu guztietan %46a baino handiagoa da.

2. Udalerri gehienetan behaturiko erabilpena goren mailako erabilpen-tasa baino handiagoa da.

3. Hizkuntzaren erabilpena nolakoa den ikusirik gure gizartea anisotropikoa da. Euskaldunak estatistikoki posiblea dena baino gehiago mintzo dira euskaraz; horren azalpen bakarra hizkuntz-harreman anisotropikoetan aurki daiteke, hots, euskaldunen arteko hizkuntz-harremanak uste baino estuagoak dira.

*Euskaldungoari  
dagokiolarik haien  
euskararekiko  
jokabidea ona  
baino hobea dela  
zalantza izpirik  
gabe esan  
dezakegu*

Sarearen irudia argigarri suerta dakiguke. Hizkuntzen arteko ukipen egoeran ematen diren hizkuntz-harreman azterketa egin eta gero ez-ohizko erabilpen-tasak *anisotropiaren* isaladapenak dira. Euskaldunen hizkuntz-portaera oro har, euskararen aldekoa da harik eta haien arteko *hitz-harremanen* sarea erdaldunena baino *trinkoagoa* izateraino. Gizartearen hizkuntz-erabilpenaren azterketatik ezin erator daiteke euskaldunen borondatea euskararekiko *ahula* denik. Are zehatzago, euskaldunen artean, beste edozein elebidun multzotan gerta daitekeen bezala, euskararen eta erdararen aldeko pertsonak aurki daitezke. Edonola ere euskaldun-multzoari, euskaldungoari, dagokiolarik haien euskararekiko *jokabidea* ona baino hobea dela zalantza izpirik gabe esan dezakegu.

*Xabier Isasi Balanzategi  
EHUko irakaslea*

<sup>1</sup> Komunikazio-talde horiek pisuak aztertzeke egonagatik guk  $W_2 = 0.7$ ,  $W_3 = 0.2$  eta  $W_4 = 0.1$  balioak erabiltzen ditugu. Edonola ere definizioz ondorengoa bete behar da:  $W_2 + W_3 + W_4 + \dots + W_n = 1$